

Gasteizko Udal Haur Eskoletako sarea: 29 urte eskola sortzen

Behean sinatzen dugunok gure protesta adierazi nahi dugu, alkateak uztailaren bukaeran dekretuarekin sortu zuen egoera dela eta. Dekretu honen bidez Udalaren Haur Eskolen sarea berregituratu zuen. Herritarrak garen heinean, ez dugu neurri horrek gure hiriari dakarkion deskapitalizazioa onartzen eta beraz, politikariei atzera egiteko eskatzen diegu.

Ematen du, alde batetik, 0-3 urteko zikloa arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren dekretua argitaratu zenetik den-dena berria dela eta hutsetik abiatzen garela eta bestetik, ahaztu beharko genukela azken urteotan Gasteizek kalitatezko eredu publikoa, aitzindaria eta estatuko erreferentea izan duela. Hezkuntza-eredu aurrerakoi honek berebiziko garrantzia ematen die bizitzaren lehenengo urteei, gure seme-alabek adin hauetan garapenean funtsezkoak izango diren trebeziak, ezaguerak eta esperientziak hartzen baitituzte. Bestalde, eredu honen osagai nagusiak hauek izan dira: hezkuntza-eredu egokia, banakako arreta eta lanbide-kategoria bereko bi hezitzaile, etengabe prestakuntza jasotzen ari direnak... Horretaz guztiaz jabetu dira bai hainbat hezkuntza-agente bai eta gure eskoletatik urte hauetan igaro diren milaka gurasoak ere.

Bestalde, ez dute dekretu hori arrazoitzen duen ebaluaziorik egin eta Udal Haur Eskolen praktikak legearen gutxieneko baldintzak gainditu dituenean (ratioei, langileei, instalazioei...dagokienez), bakarrik ekonomi arrazoietan oinarrituta, denboran atzera eraman nahi gaituzte, orain hasiko direnekin parekatu arte.

Sistema publiko eraginkorra suntsitu nahi dute, hain zuzen ere, bi ezaugarri nagusi hauek dituen testuinguruan: alde batetik, gaur egun Gasteizko ikastetxe publikoek (Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herrietan ez bezala) ezin diote 0-3 urteko haurren eskariari aurre egin; eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak udalaren haur eskolei eman dien finantzazioa askoz handiagoa da aurreko urteetan eman diena baino.

Dagoen gizarte presioaren aurrean ulertzen dugu eskubideak bateragarri egin behar direla. Baina hau horrela izanik ere, kontuan hartu behar dugu lehentasun handiena eduki behar duela haurrak bere garapen pertsonala errazten duen hezkuntza-gune bat izateak. Haur eskolak ezin daitezke bihurtu lan merkatuaren interesak zaintzen dituzten haurtzaindegi hutsak. Ez da batere bidezkoa eskolak lana eta familia bateratzeko ardura hartzea eta are gehiago, gai hori, hezkuntza etapa honetan bakarrik azaleratu nahi denean.

Beste alde batetik, gure ustez, etapa honetan ume guztiek hezkuntzan sartzeko eskubidea eduki behar dute eta oraindik gehiago, gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna bilatzen bada. Zentzu honetan, ezin daitezke ulertu ikasturte honetan 300 familiak baino gehiagok plazarik ez edukitzea edo udalak ekimen pribatuari zerbitzu publiko baten erantzukizuna eta negozioa ematea (Lakuan 9 lur-sail salduz). Dagoen sistema publikoa suntsitzea, pertsonen ahalmen ekonomikoari dagokion beste sistema bat bermatu gabe, erabat axolagabea da administrazioaren ikuspuntutik.

Aurrekoaz gain, uste dugu sistema modu ordenatu batez arautzeko eta planifikatzeko eskumena duenaren jarduera –edo zehazkiago esanda, pasibotasuna- erabat onartezina dela. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila ez da gai izan gure hirirako hezkuntza eskaintza ordenatzeko edo sare publikoaren eta pribatuaren arteko oreka-irizpidea errespetatzen duen eskola-mapa bat eratzeke, oreka hau baita Eskola-hitzarmenaren (1992) funtsezko zutabea.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, Gasteizko gizarte osoari, eta bereziki, adin tarte honetan seme-alabak dituzten gurasoei dei egiten diegu, egoeraren larritasuna salatzeke eta kalitatezko eredu publikoa defendatzeke duen garrantziaz jabetzeko, hauxe baita, finean, guk defendatzen duguna.

Gasteizen 2004ko irailaren 21ean

Manifesto honekin bat baldin bazatoz bidaliezaguzu zure atxikimendua "basatxi@euskalnet.net" posta elektronikora. Posiblea da ere era kolektiboan egitea (klastroa edo Zuzendaritza Taldearen izenean). Oinarriazko datuak (izena, ikastetxea...ere behar ditugu). Epea urriaren 1ean amaitzen da.